


Pello Salaburu

HIZKUNTZALARI ETA IDAZLEA

“Liburu honetan hitzaren barrokismoa lantzen saiatu naiz, besterik ez”



Salaburu, berriki izandako bere liburuaren aurkezpenean. Foto: Erein

Oroitzapenak, hausnarketak eta Cuzcon igarotako “egonaldi surrealista” osagai, puzzle bitxia taxutu du Pello Salaburuk (Arizkun, 1951) ‘Errateko nituenak’ liburuan

Amaia Santana

BILBO – *Errateko nituenak* (Erein, 2014) lan-bidaia bat du abiapuntu. Esan behar zituen guztiak erran ez baditu ere –“inondik inora”–, hitzaren jolas horrekin pozik agertu da Salaburu: “Biluztu naiz, nire beste alde bat erakutsi dut”, aitortu du. **Liburuaren aurkezpenean, Cuzcoko bidaia “surrealista” izan zela aipatu zenuen, zer dela eta?**

–Bidaia bera baino, egonaldia izan zen oso surrealista. Bertako autoritateek eskatu ziguten hizkuntza politikei buruzko masterra antolatzea eta azken urratsak egiteko asmoz abiatu nintzen liburuan agertzen den bidaia horretara. Nire asmoa zen ikasleak aurkitzea eta horiekin banan-banan elkarrizketatzea, azterketa moduko bat egitea... Alta, ezin izan nuen hori egin, haiekin egoteko modurik ez zegoelako: hitzordu bat zehaztu batekin eta gero ez zen agertzen... Beste erritmo bat darabilte han, hori egia da. Bizitako guztia txosten batean bildu nuen, antolatzaileentzat. Eta, hain surrealista izan zen dena, ezen umorez betea zegoen idatzia.

Informe horrek abiatu zuen, beraz, ‘Errateko nituenak’ idazteko grina.

–Hala da, bai. Txosten horretatik ateratu dut liburua, eta hau idaztea beste bidaia bat izan da. Azken batean, Cuzcon igarotako aste horretan gertatutakoa errespetatu badut ere, une oro nabil joan-etorrika denbora eta espazioan. Nire bizitzako oroitzapen eta kontu ugari tartekatu ditut eta, zentzu horretan, liburu hau puzzle bat dela esan genezake.

Eta pieza guztiak enkajatzan dute?

–Hori ez da bakarrik kontua, badira kontu pertsonal asko, salto ugari beste herrialde eta garaietara eta horiek guztiak ehundu behar dira narrazioan, baina gertaera fikzionatuak ere badira. Horregatik liburu hibridoa da, istorioekin hasi eta istorioekin bukatzen dena. Guztia borbiltzea zaila egin zitzaidan, baina barne-koherentzia bat du.

Saiakeratik ere badu zerbait liburu honek, ez da hala?

–Badira hainbat hausnarketa, hainbat gaien inguruan. Genero honen ezaugarri batzuk izan ditzake ere bai, baina ez da saiakera bat. Liburu hau zerbait bada, literatura da. Besterik gabe, hitzaren barrokismoa lantzen saiatu naiz. Hau da, literatura, funtsean, hitza da, hitzaren jolasa; eta barrokismo horretan aritu naiz ni. Asmatu dudana ala ez, hori irakurleak esan beharko du.

Obra hau idazteak zure literaturaren ikuskera aldatu egin du?

–Ez, lehen nituen iritziz berak ditut eta. Literatura beti izan dut gustuko, oso irakurzalea naiz. Egia esan, errespetu handia diot literaturari, eta ez nuen nire burua ikusten lite-

ratura idazten, zailegia iruditzen zitzaidan. Baina, nire seme zaharrenek beti animatu nau eta niretzat ariketa erabat berria zenari ekin nion. Zure esanetan, idatzi duzun lanik “pertsonalena” dugu honakoa. Are gehiago, “biluztu” zarena ere aitortu duzu. Bertigorik?

–Bai, bertigo gaingaitu behar izan dut. Bi zentzutan biluztu naiz. Alde batetik eta arestian aipatu bezala, nire bizitzaren alde asko hor daude bilduta. Bestetik, landu ditudan gai jakin batzuegatik dinot biluztearena. Askotan mintzatu naizen gaiak ere badira liburuan, noski. Egia da, baita ere, ordu asko eman nituela testua zuzentzen, emaitza polita lortu nahi nuelako. Halere, gai jakin batzuekin, esaterako sexu-kontuekin, idazten hasi eta ezin gelditu... nire buruari galdetzen nion arte: *beno, baina nik honi buruz idatzi behar dut?* Ez nintzen gai ikusten, baina, azkenean, zera erabaki nuen: nire beste alde bat erakutsiko dut. **Euskaltzain osoa izaki, zer azpimarratuko zenue liburuan erabilitako euskaraz?**

–Euskara batuan idatzita dago, baina saiatu naiz batasun horren beste eredu bat lantzen. Alegia, euskara batua deitzen dugun hori euskal hizkuntzaren historian egin dugun ekarpenik handienetako bat da, baina idazle gehienak –edo behintzat ezagunenak– gipuzkoarrak direnez, hauek bere euskara baliatu dute. Eta nik ere hala egin dut: nire sortetxeko euskara erabiliz, beste fiabardura bat erantsi diot liburuari. Hau da, irakurtzen duenak badaki ez duela gipuzkoar batek idatzi. Halaber, Baztan eta Iparraldeko hitz ugari sartu ditut, baina irakurri dutenei jarraiki, oso erraz ulertzen eta segitzen da narrazioa, hots, euskararen aldetik ez dago inongo zailtasunik. Are gehiago, liburuaren beste balioeta-

“Posible da euskara batua askoz ere gehiago aberastea; baina hori bai, txokokeriatan sartzea ez da bidea”

ko bat dela pentsatzen dut.

Ildo horretatik, akaso euskara batua zurrungia al da oraindik? Bestela esanda: akademizismoaren mamurik ote?

–Ez, zurrunga ez da hitz egokia. Izan ere, euskara batua posible da askoz ere gehiago aberastea. Neurri handi batean, gipuzkeran oinarritzen da –eta hau ez da peioratiboa inondik ere–; esan nahi dudana da gaur egungo testuetan gipuzkoarrek pisua dutenez, normala dela haien eredu nabarmenak. Horregatik nire sortetxeko ereduaren alde egin dut nik, eta uste dut ariketa hori ona dela euskara batua eta oro har euskal hizkuntza aberasteko. Txokokeriatan sartzea ez baita bidea. **Euskara eta kitxua bezalako hizkuntzen arteko paralelismoak ere agertuko da liburuan, ezta?** –Bai, horren inguruko hausnarketak jaso ditut. Hein batean, kitxuak baditu euskarak izandako eztabaida bertsuak: nongo kitxua ote den politagoa, munduko hizkuntzarik ederrena eta zailena dela... ●

Memorias de un (aparente) diario de viaje

Las caminatas solitarias por las calles de la ciudad azteca propiciaron el nuevo libro de Salaburu

BILBAO – Pello Salaburu no otorga un sentido muy trascendente a los viajes. “He viajado bastante y ello no implica necesariamente que ayude a liberar nuestros nudos internos”, comenta. Según el lingüista, “cada uno se vale de razones o estímulos muy diferentes para la reflexión interior”. Desde leer una novela o una noticia en el periódico hasta escuchar a alguien en la radio, “cualquiera de estas acciones cotidianas pueden influir y *removernos* mucho más que cualquier viaje”.

Sin embargo, fue un viaje de trabajo a Cuzco (Perú), realizado en otoño de 2012, el que catalizó una serie de recuerdos, vivencias y reflexiones de diversa índole recogidas ahora en *Errateko nituenak* (las que tenía por decir). “El viaje fue un mero pretexto, puesto que lo desencadenó la idea de escribir este libro fue mucho más simple: tenía muchas horas libres entre reunión y reunión”. Así, sus caminatas por las calles de la ciudad azteca, a solas con sus pensamientos, propiciaron el libro “más personal” de Salaburu, tal como define el propio autor.

SALTOS ESPACIO-TEMPORALES

Publicado bajo el sello de la editorial vasca Erein, el libro fue presentado recientemente en Donostia, en un acto en el que Salaburu estuvo acompañado del escritor Anjel Lertxundi y del editor Inazio Mujika. El libro se estructura en seis grandes epígrafes, del 1 al 6 de octubre de 2012. Bajo la apariencia de ese diario de viaje, el autor emprende un periplo con continuos saltos en el tiempo y en el espacio: de las calles de Cuzco a las de Bilbao, Ámsterdam o París, entre otras. Todas ellas plagadas de recuerdos y experiencias que el filólogo y exrector de la Universidad del País Vasco comparte por primera vez.

Salaburu no es empero un escritor novel, tiene a sus espaldas una docena de libros, publicados a título individual o en conjunto con otros autores. Eso sí, la temática de sus publicaciones difiere de la *literatura personal* que plasma en *Errateko nituenak*, pues se centran en el estudio del euskera. *Baztango euskalkiaz* (1980), *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* (1987) y *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia* (2005) son algunos de los estudios acometidos por Salaburu, miembro de número y director de la Comisión de Euskara Batua en la Academia de la Lengua Vasca (Euskaltzaindia). –A.S.